

## KANALAK

Gure produktua bezeroengana helarazteko hiru kanal ezberdin izango ditugu: Komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak.

Komunikazio-kanalei dagokionez, web orrialde bat sortuko dugu. Horren bidez, institutu eta eskola guztiei gure produktuen berri emango diegu. Bertan, telefonoz zein online egin ahal izango dira eskaerak. Horrez gain, sare-sozialen (Facebook eta Instagram) bidez, gure berriak plazaratuko ditugu, adibidez; konpostontzien diseinuaren lehiaketaren argazkiak eskegiko ditugu jendeak bere iritzia eman dezan eta bozka dezan.

Banaketa-kanalei dagokienez, gure produktua banatzeko furgoneta bat alokatuko dugu, merkeagoa delako bat erostea baino. Egun bakoitzeko 38,96€ ordaindu

beharko ditugu. Furgoneta Bilboko zentroan hartu eta bueltatuko dugu, 10:00etan. Aipatu beharra dago astero egun bakar batean egingo ditugula eskariak. Horrela, dirua aurreztuko dugu.

Salmenta kanalei dagokienez, ordaintzeko bi modu egongo

dira. Lehenengo aukera, interneten bidez ordaintzea izango da, Paypal-en bidez edo kreditu txartela erabilita. Aukera horretaz aparte, txkeen bitartez ordaintzea posiblea izango da.

“Metro Bilbao”-n iragarki bat jarriko dugu baina ez dugunez diru asko gastatu nahi, aukera merkeenatarikoa aukeratuko dugu. Urdulizek hazkunde demografiko handia jasan du azken

urteotan. Uribe-Kostako ospitalea egin dute eta baita etxebizitza asko ere. Egoera horretaz baliatuz, Urdulizko metro geltokian jarriko dugu iragarkia. Are gehiago, geltoki merkeenatarikoa da, 3.480€ ordainduko ditugulako urte osoko alokairuaren truke.



**VOLKSWAGEN CADDY COMBO VAN O SIMILAR** RECOMENDADO

**Lugar de recogida:**  
CIUDAD

**Política de combustible:**  
LLENO-LLENO

x4 x2 Diesel Km 3m3

**TOTAL: 38,96 €**  
Impuestos incluidos

**38,96 €/día**

**RESERVAR**

	Soporte	Formato	Alquiler 1 año	Estaciones C
Metro Bilbao	Mupis 1 cara	120x175 cm.	(A) 5.400 € (B) 4.560 € (C) 3.480 € <a href="#">VER ESTACIONES A-B-C</a>	ABATXOLO AIBOA BERANGO GOBELA KABIEZES LAMIAKO LARRABASTERRA LUTXANA NEGURI PLENTZIA URBINAGA <span style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">URDULIZ</span> --- EUSKOTREN: ESTACIONES DE LA LÍNEA 3